

jarduera 2007 plana

kulturaren
euskal behatokia



KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIAREN 2007KO JARDUERA-PLANA

AURKIBIDEA

Aurkezpena	2
1. Informazio-sistema	3
1.1. Estatistika-esparrua garatzea eta gizarteratzea	4
1.2. Informazioa kudeatzeko sistemak eta teknologia-euskarriak	5
1.3. Kultura-arloko finantzaketa eta gastu publikoari buruzko estatistika-eragiketa aurrera eramatea	6
1.4. Kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko estatistika-eragiketa aurrera eramatea	7
1.5. Sektoreko bi estatistika-eragiketa diseinatzea eta aurrera eramatea	8
1.6. Kulturaren Euskal Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema diseinatzea eta garatzea	9
1.7. Nazioarteko eta Euskadiko estatistika-informazioa eguneratzea	10
2. Erakundeekiko eta sektoreekiko komunikazioa eta harremanak	11
2.1. Euskadiko kulturaren Urteko txostena argitaratzea	12
2.2. Buletin digitalak egitea eta zabaltzea	13
2.3. Behatokiaren web orria diseinatzea eta eguneratzea	14
2.4. Lan-jardunaldiak antolatzea nazioarteko kultura-behatokiekin	15
2.5. Harremanak Kulturaren Euskal Planeko sektoreen lan-taldeekin	16
2.6. Harremanak beste instituzio eta erakunde batzuekin	17
2.7. Sektore-azterketen laburpen exekutiboak	18
3. Behatokiaren kudeaketaren plangintza eta kontrola	19
3.1. 2007ko Memoria	20
3.2. 2008ko jarduera-plana	21

AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokia martxan jartzea asmo handiko proiektua da, eta kultura-errealitatea aztertzeko etapa berriari eman dio bide. Lehen hilabeteetan, haren funtzionamenduaren oinarriak finkatu dira. Orain, berriz, Behatokia sendotu eta etorkizunera bideratu behar da, betiere kontuan izanik zertarako sortu zen. Ildo horretan, 2007ko ekitaldian hasiko da Behatokia euskal kulturaren errealitatea aztertzen eta interpretatzen lagunduko duen berezko informazioa sortzen.

Aurrean ditugun erronkei heltzeko, ezinbesteko zeregintzat hartzen da jarduera-plana egitea, errealitate dinamikoari erantzuteko; planak proiektu nagusiak deskribatu, esku hartzeko arloak moldatu eta lortu beharreko helburuak eta emaitzak zehaztu behar ditu..

Proiektuak hiru eduki-ataletan bildu dira:

- 1. Informazio-sistema:** horixe da Behatokiaren oinarria, euskal kulturaren arloko informazioa antolatzeke eta sortzeko jarri baita abian.
- 2. Erakundeeekiko eta sektoreekiko komunikazioa eta harremanak:** erakundeeekiko eta sektoreekiko komunikazio- eta harreman-politikak ematen dio zentzua Behatokiari; aurrerapenak kalera aterako ditu eta harreman-sarea osatuko du, kultura-eragileak han barneratzeko.
- 3. Kudeaketaren plangintza eta kontrola:** horrelako proiektu batek barne-kudeaketa behar du, helburu errealistak baina anbizio handikoak lortzen laguntzeko.

1. INFORMAZIO-SISTEMA

D Eduki-atal honetan, zenbait arlotatik sistema egituratzen duten proiektuak biltzen dira:

- **Arlo kontzeptuala:** EAEko kulturaren estatistika-esparrua sortzea
- **Arlo teknologikoa:** informazioa kudeatzeko sistemak eta teknologia-euskarriak
- **Informazio-arloa:** estatistika-eragiketak, Kulturaren Euskal Planaren ebaluazioa eta informazioa —bai nazioartekoa, bai Euskadikoa— eguneratzea

1.1. Estatistika-esparrua garatzea eta gizarteratzea

Kulturaren estatistika-esparrua da Behatokiaren aurtengo ardatz nagusia. Horren bueltan dabilta gainerako proiektuetako asko. Definizioak eta kontzeptuak ezartzen ditu, **Kulturaren informazio-sistema** osatuko duen estatistika-informazio erkargarria biltzen, adierazleak prestatzen eta ikerketa analitikoak garatzen laguntzeko. Horrenbestez, atal hauek ditu:

- Eredu kontzeptualaren garapena
- Kultura-adierazleen eta informazio-iturrien sistema
- Estatistika-esparrua estaltzeko lan-metodologia

Lan-prozedura horren bidez, **Kulturaren estatistika-plana** osatuko da; Behatokiak datozen urteetan izango duen ibilbide-orria, hain zuzen. Plan horretan, jarduera-lehentasanak ezarriko dira (I+G+B ikerketa-ildoak). 2007ko ekitaldirako, egin behar diren bi sektore-eragiketak zehaztuko dira.

2007ko ekitaldian, oinarrizko dokumentuan proposatutako kulturaren estatistika-kontzeptua egiaztatuko da, sektore guztietarako eta zehar-lerroetarako adierazleen eta informazio-iturrien sistema osatuko da eta proposamena gizarteratuko da, sektoreek eztabaidatu dezaten.

2007KO EMAITZAK

- Estatistika-esparrua: eredu kontzeptuala
- Sektoreko lan-koadernoak
- Kultura-estatistiken hainbat urtetarako plana

1.2. Informazioa kudeatzeko sistemak eta teknologia-euskarriak

Euskadiko kulturaren estatistika-esparrua garatzeko balioko duten oinarriei –teknologia- eta antolaketa-aukerei– buruzko irizpideak eta joerak proposatzea da helburua.

Datu, iturri eta euskarri heterogeneoak izanik, informazioaren **bilketari, biltegiratzeari, kudeaketari, azterketari eta zabalpenari** buruzko proposamenak aurkeztea da xedea.

2007KO EMAITZAK

- Estatistika-informazioa kudeatzeko sistemak eta teknologia-euskarriak: proposamena

1.3. Kultura-arloko finantzaketa eta gastu publikoari buruzko estatistika-eragiketa aurrera eramatea

EAEn instituzioetatik (Eusko Jaurlaritza, Foru-aldundiak eta Udalak) kultura bideratutako ekonomia-partidak jasoko dira, kultura-sektoreko gastua zenbatekoa den ezagutzeko eta biztanleentzat egiten den inbertsio-ahalegin horren ikuspegi erkatua izateko ratio nagusiak lortzeko.

2007KO EMAITZAK

- Galdera-sortaren diseinua
- Emaitzak zabaltzeko berariazko produktuak

1.4. Kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko estatistika-eragiketa aurrera eramatea

Kultura-jardueren aukera zabaletik biztanleriak zer eskatzen duen jakitea da eragiketa horren helburua. Puntu hauek aztertzen dira:

- **Ohiturak:** jarduera jakin batzuetako parte-hartzea/jarduera jakin batzuen kontsumoa
- **Kultura-praktikak:** berariazko denbora-epe batzuekin lotuak, jarduera horiek zer maiztasunekin egiten diren

2007KO EMAITZAK

- Galdera-sortaren diseinua
- Emaitzak zabaltzeko berariazko produktuak

1.5. Sektoreko bi estatistika-eragiketa diseinatzea eta aurrera eramatea

Kulturaren estatistika-esparruan ezartzen diren lehentasunen arabera zehaztuko dira. Behatokiak eragiketak diseinatu, landa-lanaren jarraipena egin eta emaitzak aztertuko ditu.

2007KO EMAITZAK

- Galdera-sortaren diseinua
- Emaitzak zabaltzeko berariazko produktuak

1.6. Kulturaren Euskal Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema diseinatzea eta garatzea

Metodologia-ikuspegi konbinatu batetik abiatuta, helburu hauek proposatzen dira:

- Euskal Plana hobetzea, eragileen balorazioen, pertzepzioen eta iradokizunen bidez (lantalde parte-hartzaileen bidez egingo da hori).
- Garapen- eta aurrerapen-mailaren (aurrera eramatea/jarraipena), Planaren helburuen (emaitzak) eta gizartean duen eraginaren berri izatea.

2007KO EMAITZAK

- Jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna diseinatzea
- Proba pilotua
- Kulturaren Euskal Planaren ebaluazio-txostena

1.7. Nazioarteko eta Euskadiko estatistika-informazioa eguneratzea

Helburua da 2006an jasotako informazioa osatzea, nazioarteko estatistika-sistemak eta iturriak eta eragiketak Euskadiko informazioarekin aztertutako ondoren. Eduki berriak jasotzeaz gain, informazioa aberastuko da, ikuspegi kualitatibotik; 2007an sektoreko adituekin egingo diren bileretatik eta nazioarteko lan-jardunaldietatik aterako da hori.

2007KO EMAITZAK

- Etengabe eguneratuko diren datu-baseak
- Zabalpenerako berariazko produktuak

2. ERAKUNDEEKIKO ETA SEKTOREEKIKO KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

Behatokiaren komunikazio- eta harreman-politikak bi ikuspegi uztartzen ditu:

- Batetik, lortutako prozesuak eta emaitzak erabiltzaileei komunikatzea eta zabaltzea.
- Bestetik, parte hartzeko eta hausnarketarako esparrua osatzea hainbat instituziorekin eta kultura-eragilerekin, baita Kulturaren Euskal Planeko lantaldeekin ere.

Euskadiko eta beste ingurune batzuetako beste erakundeekiko eta kultura-eragileekiko harremanak eta elkarreragina sendotzea da azken helburua, baita nazioarteko kultura-behatokiekin eta informazio-sistema batzuekin harreman sendoagoak izatea ere.

2.1. Euskadiko kulturaren Urteko txostena argitaratzea

Behatokiaren **argitalpen nagusia** da Txostena, eta Behatokian egiten den lan zabalaren berri emateko balioko du; horretaz gain, berariazko gai bati buruz sakon hausnartzeko erabiliko da.

Bi zati izango ditu. Lehen zatian, dagoen informazioa baliozkotuko da, eta euskal kulturaren berrikuntza nagusiak azpimarratuko dira. Behatokiko I+G+B ildoek ezarritako estatistika-eragiketak aurrera eramanez lortutako emaitza nagusien erakusleihoa izango da, baita sektore-ikerketen esparruan egindako azterketa kualitatiboenena ere. Bigarren zatia, berriz, monografikoa izango da, sakon landuko den gai bati buruzkoa; 2007koa munduko kultura-behatokiei buruzkoa izango da. Euskaditik bertatik nahiz nazioartetik gaiei buruzko ikuspegi zentzuzkoenak ematen dituzten adituen artikuluak izango ditu.

Lehendabiziko Kulturaren urteko txostena urrian argitaratzea aurreikusten da.

2007KO EMAITZAK

- Euskadiko Kulturaren urteko txostena argitaratzea
- Argitalpena aurkeztea eta zabaltzea

2.2. Buletin digitalak egitea eta zabaltzea

Kulturaren Euskal Behatokiaren eta Kulturaren Euskal Planaren barruan egiten diren aurrerapenen berri ematea da buletin elektroniko horren helburua. EAEko eta beste ingurune interesgarri batzuetako administrazioek eta eragile publikoek nahiz pribatuek aurrera eramandako proiektuen, praktika onen eta esku-hartzeen berri emateko espazio irekia izango da.

EAEko kultura osatzen duten sektoreen estatistika-datuak identifikatzeko berriazko atalak ditu.

2007KO EMAITZAK

- Hiru buletin elektroniko argitaratzea

2.3. Behatokiaren web orria diseinatzea eta eguneratzea

Behatokiaren produktuen berri etengabe emateko erakusleihoa izango da web orria. Orria diseinatzeko orduan, kontuan izango dira Eusko Jaurlaritzak Interneteko agerpenaren ereduetan zehaztutako ildoak, eta erabilgarritasunari eta irisgarritasunari buruzko arloak ere zainduko dira.

2007KO EMAITZAK

- Etengabe eguneratzen den web orria

2.4. Lan-jardunaldiak antolatzea nazioarteko kultura-behatokiekin

Kulturaren Behatokia martxan jartzean izandako esperientziak partekatzea da lan-jardunaldien helburu nagusia. Mota horretako erakunde bat martxan jartzearekin zerikusia duten alderdi praktikoetan jarriko da arreta.

Jardunaldiak urrian egitea aurreikusten da, eta, besteak beste, Quebecoko Observatoire de la culture et des communications eta Piemonteko Osservatorio Culturale gonbidatuko dira.

2007KO EMAITZAK

- Nazioarteko lan-jardunaldiak

2.5. Harremanak Kulturaren Euskal Planeko sektoreen lan-taldeekin

Sektoreetako kolektiboen inplikazioa lortu nahi du Behatokiak, kultura-informazioaren sistema sortzeko, eta etengabeko atzeraelikadura-prozesuaren bidez egingo da hori. Prozesuaren eragile nagusiak izango dira, eta eginkizun nagusi hauek izango dituzte:

- Informazioa eta ezagutza ematea
- Behatokiaren esparruan izandako aurrerapenak eta emaitzak baliozkotzea
- Sektorearen ildoen eta aurrerapenen erreferente iraunkor bihurtzea (kulturako I+G+B)

2007an, hauek izango dira kultura-sektoreekin egingo den lanaren helburu nagusiak: batetik, Behatokia garatzen ari den estatistika-esparruaren edukiak gizarteratzea; bestetik, Kulturaren Euskal Plana ebaluatzea. Beste proiektu batzuetan ere sustatuko da sektoreen parte-hartzea, haien ezaugarrien eta sortzen diren beharren arabera.

2007KO EMAITZAK

- Aurkezpenak eta lan-saioak

2.6. Harremanak beste instituzio eta erakunde batzuekin

Beste instituzio eta erakunde batzuekin harremanak izatea eta haiekin lankidetzan aritzea beharrezko baldintza da Behatokiak aurrera egiteko. Harreman-sarea osatu eta finkatu nahi da instituzio publikoekin nahiz pribatuekin, hain zuzen, proiektua zabaltzeko, informazioa trukatzeko, esperientziak partekatzeko edo etorkizunean lankidetzan aritzeko.

2007KO EMAITZAK

- Jardunaldietara, aurkezpenetara, bisitetara, lan-bileretara eta abarretara joatea

2.7. Sektore-azterketen laburpen exekutiboak

Behatokiak eredu bateratua diseinatu du Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sustatutako azterketen eta ikerketen laburpena egiteko. Horien heterogeneotasuna dela eta, forma bereko diseinua erabiltzen da horietatik eduki nagusiak ateratzeko sistematikari eta informazioa web orriaren bidez zabaltze-ari dagokienez.

2007KO EMAITZAK

- Hamahiru sinopsi-fitxa eta sektore-laburpen argitaratzea eta web orrian jartzea

3. BEHATOKIAREN KUDEAKETAREN PLANGINTZA ETA KONTROLA

Edozein proiektuk kudeaketa eraginkorra behar du noranzko egokira iristeko; bada, Behatokiaren kasuan, are beharrezkoagotzat hartzen da hori. Askotariko taldeen, instituzioen, proiektuen eta solaskideen konbinazioak kudeaketa arina behar du, aurrerapenak ikusten, akatsetatik ikasten eta etorkizunera ikuspegi egokitik begiratzen laguntzeko.

2007ko urteko memoria eta 2008ko jarduera-plana izango dira Behatokiaren kudeaketaren iparrorratzak.

3.1. 2007ko Memoria

2007ko memoria prestatzea eta argitaratzea; memoria horretan, ekitaldian zehar aurrera emandako proiektuei buruzko informazio guztia sistematizatuko da.

Helburu nagusia da ezarritako konpromisoei buruzko kontuak ematea, bertetze-maila aztertuz, eta urtean zehar abian jarritako prozesu guztien garapenari eta funtzionamenduari buruzko balorazio kualitatiboa egitea.

2007KO EMAITZAK

- 2007ko memoria

3.2. 2008ko jardueraren plana

Urte-amaieran, 2008rako jardueraren plana proposatuko da. Estatistika-jardueran lehentasuna duten arloak definitu beharko dira. Horretarako, proiektuak lehenetsi, ardurak eta lantaldeak definitu eta ekintzen epeak zehaztuko dira.

Jardueraren plana kudeaketarako tresna izango da; izan ere, ekitaldi bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ildoak zehaztuko du.

2007KO EMAITZAK

- 2008ko jardueraren plana



kulturabehatokia@ej-gv.es